

# Goierritarra

329. zenbakia 2007ko urriak 19

**18**  
**URTE**  
**BETE**  
**DITUGU**

## ESKERRIK ASKO

zuen fideltasunagatik

**ALTAMIRA**  
JATETXEA



Altamiran  
sukaldaritza  
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia  
T 685 794 755 / altamira@geri.net



# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.  
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa  
Tel.: 943 653 307  
Tel. / Fax: 943 650 520  
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa  
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
Fax: 943 675 421  
E-mail: berogas@berogas.com

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.  
(Medikuntza estetikoan masterra)  
A. Ramirez Baigorri Dra.

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU  
ultrasoinuen bidez

**NOBEDA**

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal  
ZENTRO MEDIKUA  
[www.kursal.es](http://www.kursal.es)

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea  
**BEASAIN**



R.P.S.:32/04

## BERTSOTAN

## Final laurdenetan %20 goierritarra



Gipuzkoako Bertsolari txapelketako final laurdenak urriaren 20tik azaroaren 4ra bitartean jokatu dira. 5 bertso-saiotan 30 bertsolari lehiatu dira, hauetatik 6 goierritarrak.

- **Urriaren 20an, Azkoitian:** Iñaki Gurrutxaga, Jexux Mari Irazu, Xabier Sukia, Agin Rezola, Unai Agirre eta **Joxe Munduate**.
- **Urriaren 21ean, Irunen:** Jon Martin, Uxue Alberdi, Iñigo Izagirre, Unai Muñoa, **Aitzol Barandiaran** eta Josu Oiartzabal..

- **Urriaren 27an, Eibarren:** Amaia Agirre, **Iker Zubeldia**, Iñaki Zelaia, Arkaitz Oiartzabal, Ainhoa Agirrezabadi eta Hodei Iruretagoiena.
- **Urriaren 28an, Zumaian: Ekaitz Goikoetxea, Aitor Sarriegi,** Jokin Uranga, Bixente Gorostidi, Iñigo Mantzisidor eta Joxe Luis Urdangarin.
- **Azaroaren 4an, Tolosan:** Aitor Mendiluze, Jon Maia, Nahikari Gabilondo, Iban Esoain, **Iñaki Aplategi** eta Beñat Gaztelumendi.

## Goierritarra

### HAMABOSTEKARIA

#### Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea  
BEASAIN

#### Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

#### Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.**

### Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## AURKIBIDEA

**4. Euskara txukuntzen:** Ehunekoak.

**5. Ingurugiro txokoa:** Ibilaldi gidatuak: gure inguruko altxor naturalak.

**6. Errezeta:** Txipiroi beteak, albondigekin eta otarrainxkekin.  
**Aholkua:** Kirola - osasuna - aldarrikapena.

**7. Erreportajea:** Goierri Kolore, kultur arteko topaketa.

**10. Erreportajea:** Goierritarrak 18 urte.

**14. Elkarrizketa:** Iñaki Azanza, txirrindularitza eta argazkilaritza uztartuz.

**18. Gazteleku:** Ibon Soto lazkaotar igerilaria.

**21. Non zer.**

**24. Iragarki laburrak.**

**26. Argazki zaharra.**

7



GOIERRI KOLORE

14



18



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

# Ehunekoak

Maizpide  
euskaltegia

Ez dira gutxi ehunekoak adierazteko garaian izaten ditugun zalantzak eta buruhausteak. Aurrerantzean horrelakorik gerta ez dadin, hona hemen Euskaltzaindiak emandako gomendioak:

## Multzoa eta azpimultzoa:


Ehunekoetan bi kopuru izaten ditugu: %36

- Lehenengoak multzoa adierazten du (normalean 100 izaten da) eta bigarrenak azpimultzoa.
- Multzoaren zenbakia letraz edo hizkiz adierazi nahi dugunean “-ko” eta “-tik” kasu-markak erabiliko ditugu:
  - ✗ Erdialdeko Amerikako politikarietan, *ebuneko* hogeita hamasei ustelak dira.
  - ✗ Erdialdeko Amerikako politikarietan, *ehunetik* hogeita hamasei ustelak dira.
- Azpimultzoari dagokionez, **mugagabe**an adieraziko dugu, **beti ere ezaguna ez bada!**
  - ✗ Erdialdeko Amerikako politikarietan, *ebuneko/tik* hogeita hamasei (%36) herritarren dirua lapurtzen iaioa da!
  - ✗ Erdialdeko Amerikako politikarietan, *ebuneko/tik* hogeita hamaseik (%36k) badaki ustelkeria zer den.
  - ✗ Erdialdeko Amerikako politikarietan, *ebuneko/tik* hogeita hamaseiri (%36ri) “azkarregi” aberastea gustatzen zaio.
- Ehuneko jakin batez ari baldin bagara (ezaguna denean edo aurrez esan dugunean), **artikulua** behar-beharrezkoa da:
  - ✗ *Euribor delakoaren igoera dela eta, aurrerantzean ordaindu beharko duen %7a astakeria iruditzen zaio gure Manoliri.*
  - ✗ *Ekvadorreko hauteskundeetan Rafael Correa ezkertirrak botoen %75 lortu du; gainontzeko %25a beste bost alderdi politikorentzat izan da.*

## Ehuneko ala portzentaia?

Euskara batuan lehenengoa erabili behar dugu, bigarrena ez baitu jaso Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuak. **Portzentaje** hitza ere erabiltzen dugu, baina ehuneko hobesteko gomendioa egin du Euskaltzaindiak.

Eskolako nesken %99  
nirekin maiteminduta  
dago!



## Zuzendu, behar izanez gero...

1. Euskaldunen %15a ez da inoiz Euskal Herritik atera.
2. Kataluniako gazteen %25ari asteburuero mendira ir-tetea gustatzen zaio.
3. Europarren %21ek ez du sekula santan futbol-zelairik zapaldu.
4. Venezuelako iazko hauteskundeetan Hugo Chavez-ek lortutako %60 gutxitxo iruditzen zaio Georges Bush-i.

OHARRA: lehenengoa %15 behar du; bigarrena, %25i; hirugarrena zuzena da; laugarrena, %60a.

## SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako  
gida-baimenak

Aita Urdaneta  
ORDIZIA  
☎ 943 88 72 76



☎-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



## ERREFORMAK

- ✗ Tximini eta ekonomikak
- ✗ Berogailuak
- ✗ Iturgintza
- ✗ Zeramika erakusketa
- ✗ Bainuko altzariak

# Ibilaldi gidatua: gure inguruko altxor naturalak

Landarlan ingurumen taldeak ibilaldi gidatu batera gonbidatzen zaituzte asteburu honetan. Datorren igandean, urriak 21, Ordiziatik abiatuta mendi ibilaldia prestatu dugu. Goierrin bertan dugun natur ondarea ezagutarazteko asmoaz proposatzen dizuegu mendi buelta hau.

Goizeko 9etan Ordiziatik futbol zelaian bilduko gara eta ibilaldiari hasiera emanez Oianguren parke-rantz abiatuko gara. Bertatik Lazkaomendirako bidea hartuko dugu, Oiangu txiki baserri paretik pasatuz. Handik Zaldibiara abiatuko gara, uraren interpretazio zentrua ireki duten parajera. Hemendik abiapuntura itzuliko gara. Bidean hainbat geldialdi egingo ditugu besteak beste inguruko flora, geologia edo abeltzantzari buruz hitz egiteko, baina hamaiketako egiteko tartea ere hartuko dugu!

Goierriko paisaia berdea izanik, geldialditxoak egingo dugu uraren zikloari buruz hitz egiteko eta honen garrantzia ingurunean eta gizakion erabileran. Paisaiaren bilakaeran ura faktore garrantzitsua dela ohartuko gara. Urarekin lotuta, erreka edota errekaetako erlazionatutako fauna ezagutzeko



parada izango dugu (baina ez dugu ziurtatzen guztiak ikusteko aukerarik izango dugunik!). Ibaiekin lotuta ere, besteak beste ipurtatsa bezalako ugaztunak gure inguruan bizi direla ohartuko gara. Hala ere, Goierrin bizi diren, baina ikusten ez diren beste animalia batzuez ere hitz egiteko tartea hartuko dugu.

Landarediak paisaian eragin handia duela jakin badakigu eta aditu batek lagunduta paisaia eta lurralde erabilerari buruzko azalpenak entzutea izango dugu. Bidean zehar floraren inguruan arituko gara: Goierrin

aurki daitezkeen landare-ibasoreak, urari lotutako habitak ezberdinak, zuhaitz motzak eta bere kudeaketa, etab...

Lazkaomendiko larreak zeharkatzen kanpoko eta bertako etxabereen arteko ezberdintasunak ikusteko gai izango gara. Abeltzantzak paisaian eta honen kudeaketan nola eragiten duen azpimarratzekoa da.

Askotan landarediak ezkutatu arren, bideko harri eta arrokkak geologiaren aitzakia izango dira. Hauetatik abiatuz, hainbat egitura geologikoen sorrera edota jatorri tropikalak duten Aralar eta Aizkorri bezalako mendizerren gaur egungo kokapena argitzen saiatuko gara.

Gai ezberdin hauek jorratuz mendian eta basoan barrena eta lagun artean paseoan ibiltzeko gonbitea luzatzen dizugu. Anima zaitzez!

## JAKIN BEHARREKOAK

**Trasgenikoak biologikoa hil du.** Akamarretik, Behe Nafarroa, 8km-ra, Biarnon, arto trasgenikoak arto biologikoa txikitzen duela frogatu du Bio-Aquitainek. Hazi biologikoa erosi eta araudi zorrotza errespetatuz erein dute artoa. Baina arto trasgenikoaren kutsadurak arto uzta hondatu du. Ale bakarrak eta sustriak erreak dira transgenikoaren eragina. Hori dela eta, ezingo dute uzta saldu. Gainera inguruko nekazariek ez dute aitortu transgenikoa erein dutenik. Erlauntzetan ere transgenikoa ageri da, erleek bildutako lorautsaren %3 eta batzuetan %40 transgenikoa izanik, eztiak ere arazo bera du. Esperientziak erakutsi duenez, arto biologikoa eta transgenikoa ezin dira batera hazi. Laborantza biologikoa bermatzeko erabaki politikoak eskatzen dituzte.

**Madagaskarreko oihan tropikala Gizadiaren Ondare izendatu dute.** 6 parke nazional babestuz oihan tropikala mantentzea espero dute. Atsinanako espezieen %90 endemismoak dira. Deforestazioa dela eta, jatorrizko oihanaren %8,5 besterik ez da geratzen.

## LIBURUA

### “Turismo responsable”

Carles Tuduri eta beste. Ed. Alhenamedia. Bidaia-tzeko 30 proposamen. Bidaia-tu eta bertako herritarren onurak jaso ditzaten, beraien bizimodua errespetatuz. Agroturismoa, zirkoturismoa, ekoturismoa, hondartza eta abar.

## Landarlan ingurumen taldeak

### ibilaldi gidatu batera gonbidatzen

*zaituzte urriaren 21ean,*

### Ordiziatik abiatuta mendi ibilaldia

*prestatu dugu.*



## Landarlan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisteren bat bidali nahi baduzu:  
☎ 943 16 12 44 - landarlan@yahoo.es



Juanan Jimenez  
Altamira jatetxea  
Ordizia

**Osagaiak:**

- 1/2 Kg txipiroi.
- 1/2 Kg haragi xehetu.
- 250 gr. otarrainxka.
- Sagar txiki bat.
- Moldeko ogi xerra bat.
- 50ml. esne.
- 2 baratxuri ale.
- Perrexil adar bat.
- Ontza bat txokolate beltz.
- Gatza eta piper hautsa.

**Saltsarentzat:**

- Tipula bat.
- 2 piper berde.
- 100 ml. oliba olio.
- 100 ml. ardo mingostu.
- 100 ml. tomate frijitu.
- Litro bat arrain salda.

**Xehatuarentzat:**

- 2 baratxuri ale.
- 4 perrexil hosto.
- Maria gaileta bat.
- Ontza bat txokolate beltz.
- 100 ml. ardo zuri.
- 5 hur txigortu.
- Pikatoste batzuk.

Txipiroiak garbitu eta hanka eta hegoak banatzen ditugu. Hanka eta hego horiek, txokolatea, sagarra, baratxuriak eta perrexila ondo txikitu. Dena haragi xehetuarekin eta esnetan bustita ogiarekin nahastu. Gatza eta piper hautsa gehitu.

Txipiroiak aurreko nahasketarekin bete eta zotz batekin itxi. Soberan dugun haragiarekin albondigak egin. Txipiroiak eta albondigak irinetan pasatu eta frijitu ondoren gorde.

Tipula eta piper berdeak ondo txikitu eta eltze batean oliotan tipula gorritu, piperrak gehitu eta su txikian ondo egin arte eduki. Tomate frijitua gehitu eta

minutu pare batez egiten eduki. Ardo mingostua gehitu eta urritzen utzi, azkenik arrain salda gehitu eta su txikian 20 minutuz irakiten eduki.

Bitartean mortero batean xehetua prestatuko dugu osagai guztiak ondo birrinduz, ardo zuria gehitu eta dena ondo nahastu.

Salda egosi denean, turmixean pasatu. Eltze batean otarrainxkak frijitu gehiegi egin gabe. Otarrainxkak elztetik atera eta aurretik pasatu dugun saltsa gehitu. Sutan jarri eta txipiroi eta albondigak gehitu. Gatza bota eta 45 minutuz irakiten eduki. Bukatzeko 15 minutu falta direnean xehetua gehitu.

## Kirola - osasuna - aldarrikapena

## AHOLKUA

Kirola osasuna (omen) da. Oiangun golf zelai bat egitera doazte. Gure osasunaz arduratzen hasiak ote dira agintariak? Ez ote litzateke osasuntsuagoa Oiangun zehar familian edo lagunartean buruturiko txangoa naturaz gozatzu? AHT-an etorriko dira agian golfariak kirola eginez osasuntsu mantentzea. Txikizioa. Inposizioa. Ama lurra defenda dezagun!

Kirola eguneroko bizitzan oso errotua daukagu. Badirudi futbol epaile baten akatsak (euskal taldeen aurka denean) eragin handiagoa duela euskal gizartean

Audientzia Nazionaleko epaile baten euskal ordezkarien aurkako bidegabeke-riak baino. Edo hori sinestara-zi nahi ote digute komunikabideek? Edo faxista batzuk ote dira? Ez al da, faxismoa boterearen babesean ernaltzen den hazia? Inposizioa. Gure izaeraren deusezte.

Urtero orrialde hauetan aipatzen dugun Behobia-Donostia lasterketa iristear da. Milaka lagun errepidean barna korrika eta beste hainbat bide baztarretan. Manifestazio eskubidea bahitua eta bilerak egitea delito bilakatu den honetan

ezin ote dezakegu euskaldun garen eta izan nahi dugunok lelo baten inguruan elkartu? Batzen gaituena sendotu eta aldentzen gaituenari konponbidea bilatu. Euskaldunok elkarren artean "seduzitu". Tourrean piri-neoak "uholde laranjaz" jazten dira, nahiz eta gehien kolorea zuri-gorri-berdea izan. Gabon bezperan San Mamesek euskal talde desberdinen zaleak biltzen ditu "Euskal Selektzioren alde" lelopean. Zergatik ez Behobian ere gehiengo handi bat "Erabakitze-ko eskubidearen alde" aldarrikatuz?



Etor Mendia  
Kemen Koz  
Lazkao



# GOIERRI KOLORE

**Kultur  
arteko  
topaketa,  
elkar  
ezagutzeko  
espazioa  
sortzea  
helburu**

**G**ero eta jatorri eta kultur ezberdineko jende gehiago bizi gara Goierriin. Guztion arteko elkar ezagutza bultzatzeko espazio ezberdinak sortu nahi izan dira eta horretarako Goie-

rriko hainbat eragilek, Goierri Kolore kultur arteko topaketa antolatu dute urriaren 25etik azaroaren 10era. Musika, erakusketak, hitzaldiak, sukaldaritza ikastaroak, zinea, kantu afaria...



Agenda 21-aren barruan, gizarte arloko lantaldean, inmigrazioaren inguruko lan-keta egiteko konpromisoa hartu zuen Goiekik eta Goierriko hainbat eragilek. Lehenengo pauso bezala, Goierriko migrazio egoeraren diagnostikoa egin da; ondorio kuantitatiboak eta kualitatiboak bildu dira bertan. Lan horren emaitzak eta lan ildoak, urriaren 25ean aurkeztuko dira, arratsaldeko 6,30etan, Goiekik Ordizian duen egoitzan.

Honen harira, Ainara Ormaetxea Inmigrazio teknikariak adierazi digunez, "diagnostikoa eta plana esku artean ditugula, zerbait egitea erabaki dugu. Gero eta etorkin gehiago dago baina bakoitza gure aldetik goaz. Jatorri eta kultura ezberdineko gero eta jende gehiago bizi gara eta elkar ezagutza bat egin nahi dugu", zehaztu du Ormaetxeak.

Elkarlanaren emaitza izan da antolatu den topaketa hau. Batetik, etorkinekin beraiekin egin dira harremanak; eta bestetik, Goierriko eragile ezberdinekin. "Elkar ezagutzeko espazioa sortu nahi izan da". Azpimarratzekoa da, Sustraiez Blai elkartearekin lortu duten lankidetzak. Sustraiez Blai-ko ekitaldiak topeketen astean txertatuko dituzte. "Aste hau antolatzerakoan, Goierriko dauden baliabideak aprobetxatu nahi izan ditugu. Horren kasua da, Sustraiez Blai. Sukaldaritza ikastaroa Delikatuz zentroarekin batera egingo dugu; adierazpen artistikoa Mareu Apalategik prestatu du...", zehaztu du Ormaetxeak.

### Elkarlana

Sustraiez Blai elkarteko Josetxo Sastreren iritziz, interesgarria izan da etorkinen gaiarekin bat egin eta indarrak metatzea. "Orain arte guk, Sustraiez Blai-ko kultur ikuspegitik ikusi eta antola-



**Josetxo Sastre Sustraiez Blai elkarteko ordezkaria eta Ainara Ormaetxea Goiekiko Inmigrazio teknikaria.**

tu izan ditugu gure ekitaldiak. Kultura bidez jendea Goierriara erakarri nahi genuen. Aurten ikuspegi hori pixka bat aldatu egin dugu. Inmigrazioaren Bulegoa sortu da, inmigrazio teknikariaren figura berria hor dago eta lan hau guztia bateratzea garrantzitsua iruditu zaie. Horregatik, kolaborazioa posible izango ote zen proposamena egin ziguten. Elkartean, barne eztabaida luze baten ondoren, erabaki genuen Goiekiren proposamenean bete-betean sartzea. Probatu egingo dugu, nola aterako den zehatz-mehatz ez dakigun arren. Gaizki ez dela aterako pentsatzen dugu, elkarren osagarriak garelako. Goiekik, arlo soziala lantzen du, gu iristen ez garen arloa; eta guk kultur arloa lantzen dugu. Beraz, oso ondo ezkontzen dira. Zentzugabea litzateke Goiekik, gurekin kontatu gabe, zerbait egin eta elkarri bizkarra emanda jartzea".

Era honetan, Sustraiez Blairen azaroaren 10eko Zaldibiako kontzertuko taldeatariko bat, aljeriarra izango da: "errumaniarra edo magrebtarra izatea zen, etorkinen gehiengoa herrialde horietakoa baita. Ha-

siera batean errumaniar talde bat izatekoa zen, baina azkenean, Marsellan bizi den talde aljeriarra etorriko da", dio Sastrek.

Elkarlan honen ondorioz, "Goierri mailan ere oihartzun handia izango duela iruditzen zaigu, etxetik etxera triptikoa buzoneatuko baita, herrietan kartelak jartzeaz gain. Eta beste puntu bat eta agian garrantzitsuenak, orain arte ez bezala,

etorkinak etorriko direla gure kontzertura. Izan ere orain arte txartelak 12-15 eurotan jarri izan ditugu salgai", zehaztu du Sastrek. Aurten lehenengo aldiz, aurrez jarriko dira sarrerak salgai, 12 eurotan: Beasaingo Irizar jatetxean eta Ordizian Goierriko Baratzan. Zaldibiako udalarekin ere badeute akordioa Sustraiez Blai-koek eta zaldibiarrei 6 euro kostako zaie sarrera.

## Inmigrazio datuak

Goierriko egoera migratorioaren zenbait datu (2007-01-01eko datuak dira)

Biztanleria osoa: 41.376

Biztanleria atzeritarra: 2.359

Atzeritarren proportzioa: %5,7

**Atzeritarren nazionalitate nagusiak:** (63 nazionalitate ezberdin)

Errumania: % 31,1

Portugal: % 14

Maroko: % 10,9

Ekuador: % 10,1

Argentina: % 4,9

Pakistan: %2,2

Aljeria: % 2

Besteak: % 24,7

**Atzeritarren sexuaren arabera:**

Europa: gizona % 64,4 emakume % 35,6

Afrika: gizona % 61,3 emakume % 38,7

Amerika: gizona % 45 emakume % 55

Asia: gizona % 83,1 emakume % 16,9



## Egitaraua



GOIERRI KOLORE

### **Urriak 25, osteguna:**

**18:30ean:** 'Goierriko egoe-  
ra migratorioaren aurkezpe-  
na', Goiekin (Mallutz indus-  
trialdea 29), Ordizian. Ber-  
tan eskualdeko etorkinen  
ezaugarri orokorrak ezagu-  
tuko ditugu, alegia, zenbat  
eta zein lurraldetatik eto-  
rriak diren, nola ikusten gai-  
tuzten, bertako harrera no-  
lakoa den eta abar. Aurkez-  
leak: Cristina Blanco, Adria-  
na Villalon eta Ane Enzun-  
za. Goierriko gida ere aur-  
keztuko da. Honekin bate-  
ra, Inmigrazio Zuzendaritza-  
tik, Roberto Marrok, Inmigra-  
zioari buruzko II. Euskal  
Planaren helburu nagusiak  
azalduko ditu.

### **Urriak 26, ostirala:**

**18:30ean:** Mundu globa-  
lizatuaren aurrean, 'migrazio-  
en fenomenoari buruzko hitz-  
aldia', Lazkaoko Udaletxe-  
ko Batzar Aretoa. Hizlaria:  
Cristina Blanco.

**20:00etan:** Kantu afaria Or-  
diziako Plaza Nagusian. Hit-  
zaro eta Sustraiez Blairen  
eskutik, eta afarian sortuta-  
ko giroari eutsi nahian,  
22:00etan hasita, Bertso Rap  
Sound System taldearen  
emanaldia. Emanaldi hone-  
tan, Unai Muñoa eta Xabier  
Silveira bertsolariak, 121  
Crew eta Norte Apache (Bil-  
boko eta Barakaldokoa)  
rap abeslariak arituko dira.  
Bukatzeke Aritz Sound Sys-  
temen (Euskal Herria), Ro-  
otsseeker-en (Japonia) + Jah  
Mayna-n (Ingalaterra) Reg-  
gae Sound Systema.

### **Urriak 27, larunbata:**

**10:30ean:** 'Marokoar sukal-  
daritza ikastaroa' eta plate-  
raren komentario nutrizio-  
nala, Ordiziako Aldapaberri  
elkartean, Delikatuz Elikad-  
ura eta Gastronomía Inter-  
pretazio Zentroaren eskutik.  
Sukaldariak: Rachida Attari  
eta Samira Wahbi. Izen-  
ematea, Delikatuz zentroan  
(943882290).

**18:30ean:** 'Goierri Kolore'  
adierazpen artistikoa inau-  
guratu da, Ordiziako Bar-  
rena kultur etxean. Mareu  
Apalategik prestatu duen  
migrazioaren esperientzia-  
ren inguruko adierazpen ar-  
tistikoa parte hartu duten  
elkarrizketatuak bertan  
izango dira eta koktela ere  
emango da.

### **Urriak 29, astelehena:**

**15:30ean:** Errumaniar su-  
kaldaritza ikastaroa eta pla-  
teren komentario nutrizio-  
nala, Beasaingo Bareak el-  
kartean, Delikatuz Elikadura  
eta Gastronomía Interpreta-  
zio Zentroaren eskutik. Su-  
kaldariak: Mariana Maxem-  
niuc eta Adriana Denes.  
Izen-ematea, Delikatuz zen-  
troan (943882290).

**19:00etan:** Migrazio espe-  
rientzia bizi izan duten per-  
tsonen 'bizi istorioak' entzu-  
teko aukera, Beasaingo  
udaletxeko batzar aretoa.  
Bertan, M<sup>a</sup> Esilabet Palacio-  
sek (Argentina), Khadim  
Fall-ek (Senegal), Cristian  
Urdak (Errumania) eta Emi-  
lia Obamak (Ginea Ekuato-  
rriarra) beren migrazio pro-

## Goierri Kolore: erakusketa, bideo eta audio adierazpena

**Ordizia:** Urriaren 27tik azaroaren 3ra (Barrenan).

**Zaldibia:** Azaroaren 5etik 11ra (Karreanean).

**Segura:** Azaroaren 12tik 18ra (Ardixarra etxean).

**Mutiloa:** Azaroaren 26tik abenduaren 9ra (kultur etxe-  
an).

**Beasain:** Abenduaren 11tik 16ra (Usurbe antzokiko era-  
kusketa aretoa).

**Itsasondo:** Abenduaren 17tik 23ra (udaletxean).

**Legorreta:** Abenduaren 24tik 30era (udaletxean).

**Arama:** Urtarrilaren 7tik 13ra (kultur etxean).

**Ataun:** Urtarrilaren 14tik 30era (udaletxeko ganbaran).

**Gabiria:** Urtarrilaren 21etik 27ra (kultur etxean).

**Ormaiztegi:** Urtarrilaren 28tik otsailaren 3ra (udaletxeko  
erakusketa aretoa).

**Zerain:** Otsailaren 4tik 10era (Maixune etxean).

**Zegama:** Otsailaren 11tik 17ra (kultur etxean).

zesuaren nondik norakoak  
kontakuko dituzte: zergatik  
hartu zuten emigratzeko  
erabakia, ametsak, trabak,  
etorkizuneko ikuspegia...

### **Urriak 30, asteartea:**

**15:30ean:** Ekuadorko su-  
kaldaritza ikastaroa eta pla-  
teren komentario nutrizio-  
nala, Idiazabalgo Arretxe el-  
kartean, Delikatuz Elikadura  
eta Gastronomía Interpreta-  
zio Zentroaren eskutik. Su-  
kaldariak: Margot Sandoval  
eta Consuelo Montes de  
Oca. Izen-ematea, Delikatuz  
zentroan (943882290).

**18:30ean:** Agustin Unzurru-  
zaga SOS Arrazakeriako ki-  
deak inmigratioaren feno-  
menoaren gertuko ikuspe-  
gia emango du Idiazabalgo  
Pilar Enean. Ondorengo  
mahai-inguruan partaide  
hauek izango dira: Beatriz  
Marino (Goierriko Gurutze  
Gorria), Antton Irizar (Idia-  
zabalgo alkatea) eta Lachen  
Ibiki (langile marokoarra).

**22:00etan:** Khadim Fall se-  
negaldarra eta Maria Paglia-

lunga argentinarra inmigra-  
zioaren inguruan arituko di-  
ra Goierri telebistako Hitz  
Bitan saioan.

### **Azaroak 6, asteartea:**

**21:00etan:** Faith Akin zuden-  
darien 'Cruzando el puen-  
te. Los sonidos de Estambul'  
filma Beasaingo Usurbe ant-  
zokian. Sustraiez Blairen  
eta Goienizen eskutik. Ber-  
tan Alexander Hacke musi-  
karia liluragarria den Istan-  
bulen murgilduko da, musi-  
ka-iturri eta perspektiba ez-  
berdinen bila.

### **Azaroak 10, larunbata:**

**22:30ean:** Sustraiez Blai el-  
karteak antolatutako musi-  
ka-jaialdi nagusia Zaldibia-  
ko antzokian. Ondorengo  
taldeak arituko dira: Ja Ta Ja  
(Iruñeako runba-blues-fla-  
menkoa), Raï Na Rap (Mar-  
sella-Aljeriatik datoz, rai eta  
aljeriar musika) eta Dr. Ring  
Ding & Ranking Soldiers  
(Alemaniako Ska reggaea).  
Ondoren goizaldera arte DJ  
Makala.



# kutxa

# Goierritarra

**Goierritarra aldizkariak 18 urte betetzen dituen honetan goierritarren artean egin den inkestak irakurleen fideltasuna nabarmendu du**

## MILA ESKER

**18** urterekin adinez nagusi da esku artean duzun aldizkaria. Azalean irudikatzen den bezala, gidatzeko baimena ateratzen duen edo lehen aldiz botoa ematen duen gaztearen ilusio berarekin ospatzen ditu urteak udazken honetan. Ilusio edo poz horre-

tan, Goiekiren enkarguz, Goierriko hedabideei buruz egin den azterketak lagundu du. Inkestaren emaitzei erreparatuz, eskualdeko euskarazko hedabiderik jarraituena eta estimatuena Goierritarra dela ondorioztatu daiteke. Zailtasunak zailtasun aurrera jarraitzeko bultzadatxoa.

**AGNES IRIGOYEN**  
**PODÓLOGA**

Elkargo kide zbk 230

Astelehenetik ostiralera:  
9:30etik  
18:00etara



Tel.: 943 086 925  
Sanperio kalea, 5 ORDIZIA

RPS: 38/07



**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: [ondoeta@ondoeta.com](mailto:ondoeta@ondoeta.com) [www.ondoeta.com](http://www.ondoeta.com)

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxes: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



‘Goierriko eskualdeko hadabideak’ azterketa egin du Ikei-k, Goiekiren, Goierriko Garapen agentziaren enkar-guz. Lan honetan Goierriko hadabideei buruzko azterketa zabal eta sakona egin da. Bertan, egun eskualdean tokiko izaera duten hiru hadabide nagusiak izan dira aztergai: Goierriarra, Goierriko Hitza eta Goierri Telebista. “Izan ere, hiruok eskualdean funtzio garrantzitsua betetzen dute komunikazio eta euskararen garapenaren eremuetan, eta hala, udal laguntza publikoen hartzaile dira, besteak beste”, dio azterketaren sarre-rak. Aldizkari honek dena den, ondokoa zehaztu nahi du: Goierriarra aldizkariak, Goierriko 19 udaletatik, bakar-raren dirulaguntza soilik

jasotzen duela 2005. urtetik; Itsasondorena alegia.


Hiru hadabideok es-

kualdeko biztanleriaren aldetik duten harrera neurtu nahi izan da, bai irakurle-

ikusle kopurua dimentsio-natuz, batetik, eta baita erabiltzaileen zein erabiltzaile ez direnen iritzi eta ebaluazio orokorrak jasoz, bestetik.

Hori helburu izanik, lan honek bi ardatz nagusi izan ditu: batetik, goierriarrei eginiko inkesta orokorra, eta bestetik, interes berezia duten kolektiboekin egindako “kontrasteak”. Era horretan, informazio kuantitativo-estatistikoa izateaz gain, ikuspegi kualitatiboak ere aztertu dira.

Goierriko 800 pertsonari, inkesta telefonikoa egin zitzaion 2007ko apiril-maiatzan. 45 galdera egin ziren, eta herritarrek eskualdeko hiru hadabideen gainean duten iritziaren gaineko



### Erabilera maila

- Galdetuen %42ak beti edo ia beti irakurtzen du Goierriarra hamabostekaria; %13ak nahiko maiz irakurtzen du; %21ak noizean behin.
- Eskualdeko prentsa idatzia irakurtzen ez dutenei dagokionez, gehienek (%31) euskaraz irakurtzea kostatu egiten zaielako irakurtzen ez dutela esan dute. Beste zenbaitek, interesgarriak iruditzen ez zaielako (%15) edota etxean jasotzen ez dutelako (%15) irakurtzen ez dutela aipatu dute.
- Goierriarra hamabostekariaren irakurleen %63a harpideduna da.

  
**LADA**  
**Ssang Yong**  
**ARANDIA**  
**Garajea**  
 AUTOEN KONPONKETA  
 N-1, z/g Iurre Auzoa  
**OLABERRIA**  
 ☎ 943 88 09 47

  
**SILVIA MIRAS CASASAYAS**  
 ODONTÓLOGA  
 KOL. Zko. 649 RPS. 144/02  
  
 TEL./FAX: 943 88 92 87  
 SAN INAZIO KALEA, 2  
 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

  
**GERTU**  
 ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK  
 San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN  
 Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33  
 gertu@gertuasesores.com


  
**TOLDOS OLANAK**  
**AGUSTÍN S.L.**  
 Jose Agustin Jauregi  
 Tel. eta Faxa: 943 886 558  
 Poltsikoko tel.: 616 698 288  
 Zubi-Erreka Industrialdea, 42  
 LAZKAO  
 toldosagustin.com  
 auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



emaitza oro har positiboak lortu ziren. 800 inkestok, euskaldunei eginikoak dira. Kontrasteak, gazteen (Txindoki-Alkartasuna Institutuko 17-18 urteko ikasleak), adinduen (Esperientziaren Eskolako euskarazko talde-dinamika eta gaztelaniazko talde-dinamika) eta adituen (eskualdeko alor sozioekonomiko anitzetako ordezkariak) artean egin dira.

Orri hauetan, Goierriarrari dagozkion datuak eta ondorioak aterako ditugu. Ia 100 orrialdeetako azterketetatik, entresaka hau egin dugu:

**“Goierritarra aldizkariak, egindako ibilbidea askoz luzeagoa da eta herritarren artean euskaraz irakurtzeko ohitura ia bi hamarkadatan zehar sendotzen joan da. Beraz, arrazoizkoa denez, ibilbide jakin batean ostean egitura eta estrategia egonkorragoak eta finkatuagoak aurkezten ditu. Gainera, esan beharra dago eskualdean oso sustraitua dagoela Goierritarra aldizkaria, eta jada nolabaiteko belaunaldiartekotasun izaera ere hartua duela”.**




#### Balorazioa

- Goierritarren irakurleen gehiengoak Goierritarra aldizkaria nahiko ondo dagoela (%62), eta ia heren batek oso ondo dagoela erantzun zuen (%32).
- Landuriko gaien balorazioa: erabiltzaileen aldetik balorazio altuena jaso duten gaiak elkarrizketa eta erreportajeena eta aisia eta kulturarena dira.
- Goierriarraren formatuak jaso du balorazio indizirik altuena, ondoren banaketak, edukiak eta maiztasunak.

#### Eskualdeko hedabideen erabilera maila:

- 25-44 adin tartekoak dira Goierritarra gehien ezagutzen dituztenak %99.
- Goierritarra, maiztasun handienaz, nekazal giroan segitzen da; bertan, galdetuen %63ak beti, ia beti edo nahiko maiz irakurtzen du hamabostekaria. Hiritar giroan, aldiz, portzentaje hau apur bat apalagoa da (52). Baina, nolana ere, eremu guztietan ere erdia baino gehiago da eskualdeko aldizkaria maiztasun handiz segitzen duena.
- Eskualdeko prentsa etxean irakurtzen dute nagusiki (%82). Zenbaitetik taberna edo kafetegietan ere irakurtzen dute.






## Eskualdean sutraitua

“Goierriarra aldizkariaren kasuan, egindako ibilbidea askoz luzeagoa da eta herritarren artean euskaraz irakurtzeko ohitura ia bi hamarkadatan zehar sendotzen joan da. Beraz, arrazoizkoa denez, ibilbide jakin baten ostean egitura eta estrategia egonkorragoak eta finkatuagoak aurkeztu dituzte. Gainera, esan beharra dago eskualdean oso sutraitua dagoela Goierriarra aldizkaria, eta jada nolabaiteko belaunaldiartekotasun izaera ere hartu duela”, esaten da txostenaren sarreran.

Eskualdeko garapenean duten garrantzia azpimarratzen da, euskarazko eskualdeko hedabideak (Goierriarra, Goierriko Hitza eta Goierri Telebista) bultzatu egin behar dira. “Izan ere, hiruok eskualdean funtzio garrantzitsua betetzen dute komunikazio eta euskararen garapenean eremuetan, eta hala, udal laguntza publikoaren hartzailerak dira, besteak beste”. Eskualdeko hiru hedabideei, 2006an ia 160.000 euroko diru laguntza eman zitzaizkien eskualdeko erakundeetatik. Goierriarrak 800 euro jaso zituen 2006. urtean, Itsasondoko udaletatik soilik.

Goierriarren %88-ak erabat edo nagusiki euskal komunikabideak finantziatzearen aldekoak dira. Hala ere inkestatuak % 73a gainerako prentsaren prezian ordaindu behar dela uste du eta gehiengoak etxean jasotzea nahi du. Goierriko erakunde gehiengoak diru-laguntzarik ez eman arren, pozgarria da goierriarrek horrela pentsatzen dutela jakitea.



### Finantziazio nahia

Eskualdeko hedabideei Goierriko udalek emaniko diru laguntzen gaineko galderak egin dira, eta baita prentsaren prezio zein banaketa sistema alternatiboaren galderak ere.

- Erabiltzaileen %65ak diru-laguntzen berri baduela adierazi du, eta gainerakoek berriz, ez dituztela ezagutzen diote (%35).
- Etorkizunean hedabide hauek diruz laguntzen segitzeko beharrari buruz galde-tuta, herritarren gehiengo nabarmenak nagusiki edo erabat finantzatu behar direla iritzi dio; bai erdal munduan (%87), eta baita erabiltzaileen artean (%88) ere.
- Erabiltzaileen artean, %45ak etorkizunean hedabide hauek erabateko finantziario behar luketela uste du, eta %43ak nagusiki finantzatu beharko lirakekeela dio.
- Euskal hiztunak ez diren artean, aldiz, %62ak hedabideok nagusiki finantzatu beharko lirakekeela uste du, eta %25ak erabateko finantziario publikoa izan beharko lukeketela.

# Txirrindularitza eta argazkilaritza zaletasunak uztartuz

*www.zikliamatore.com web gunea sortu du Iñaki Azanza ordiziarrek*

Inguruko herrietako azo-  
ketan lore eta landare  
saltzaile bezala ezagu-  
tzen dugu gehienok Iñaki  
Azanza ordiziarra. Orrio-  
tan ordea, bere bi zale-  
tasunak ezagutuko ditu-  
gu: txirrindularitza eta  
argazkilaritza. Bi zale-  
tasunak uztartuz,  
forma emanez eta  
teknologia berriak  
a probetxatuz,  
[www.zikliamato-  
re.com](http://www.zikliamatore.com) web gu-  
nea sortu du.




## LOINAZARGI

Jose Lasa, 8-10 - LAZKAO  
Tel.: 943 164 846 - 627 505 687



- Elektrizitate gaiak
- Argiteria
- Etxeetarako hornikuntzak
- Informatika-gaien salmenta eta konponketa
- Informatika hornikuntzak, sareak
- Telekomunikabideak

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak"



**GOKINDEGIA  
GARIPONA**

K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

“Bost urte nituenean gure anaiak bere bizikletan barra horizontalean eseri ninduen, eta Eibarreko Bizikletaren pasaera ikustera eraman ninduen, Ordiziako Ibares bidegurutzera.

Ditudan oroitzapenak abstraktuak dira; kolore, soinu, oihu eta emozioen nahasketa bat. Baina irrika handia sortu zuen nigan. Egun hartatik hori da txirrindularitzaz sentitzen dudana.

Lasterketetan aritu nintzen 1973 eta 1980 urteen artean, infantiletatik amateurren kategoriara bitartean, eta ahal nuen lasterketa guztiak ikustera joaten nintzen. 1978an Tourra ikustera joan nintzen lehen aldiz, eta 90eko hamarkadan txirrindularitzari eta argazkilaritzari diedan maitasuna uztartu nituen.

Hau da uztarketa horren emaitza: zikliamatore”.

Horixe da zikliamatoren sartu eta sarrera gisa egiten den aurkezpena. Inñaki Azanzak berak eman dizkigu xehetasunak.

**Zer da**

**www.zikliamatore.com?**

Txirrindularitzako lasterketa ugari ikustera joan izan naiz eta joaten naiz, eta argazkiak ateratzen ditut. Txirrindularitzako argazki artxibo handi samarra daukat, beste gai ugariak ere bai. Zenbait argazki erakusketa egin izan ditut eta mundu hau pixka bat ezagutzen duten batzuk, esan zidaten, pena zela horrelako altxorra etxean gordeta edukitzea, inork ikusi gabe. Web gune bat egiteko gomendatu zidaten. Nik ideiarik ere ez neukan horretaz. Nik materiala prestatu nien eta haiek web orria sortu zuten.

**Teknologia berriak ondo aprobeztatu dituzu beraz.**

Ezusteko handiak eraman ditut ikusita zenbat jende sartzen den nire web orrian, munduko leku guztietakokak. Izugarria da interneta. Hemen bertako jendea bai-



*Goian Juanma Garate Tourrean, eskuinekoan Aitor Perez Giroan Tre Cime di Lavaredo igotzen.*

no gehiago, kanpokoa sartzten da. Hemen zabalkundea ahoz aho egiten ari da.

**Beraz, bi zaletasun uztartzen dituzu: argazkilaritza eta txirrindularitza:**

Web orriaren aurkezpenean horixe jartzen du, bi zaletasunen uztartzea da. (Honela deskribatzen du web gunean: “Zikliamatore italieratik dator. Cikloamatorek ‘zikloturista’ esan nahi du, baina hemen ‘bizikleta zale’, ‘txirrindularitza zaletua’ edo ‘ziklismo zala’ esan genezakeen bezala, Italian ez dira zale hutsak, maitaleak baizik. Horregatik, gure ziklismoa eta italiarren amorea uztartuta sortu da web orri hau, txirrindularitza maite duten beste hainbaten bilgunea izango delakoan”).

Nik argazkiak txikitatik atera izan ditut. 10-11 urterekin, argazki-makina bat oparitu zidaten. Oraindik gordeta daukat argazki-makina hura, beste guztiakin batera. 16 urterekin, reflex batekin hasi nintzen, errebelatzen ikasi nuen, txuribeltzean... gora-behera ugari izan ditut. Denbora faltagatik argazkirik atera gabe egon naizen garaiak



## Lehenengo argazkiak, Oiangun

10-11 urte zituela oparitu zioten lehenengo argazki-makina Inñaki Azanzari. “Oiangun egin nituen lehenengo argazkiak. Oiangun eta Oiangun txiki baserriaren artean, behiak larrean...”.

ere izan ditut. Orain digitalarekin, lan egiteko modua, asko erraztu du.

**Argazkilaritza analogikoa eta digitala, biak ezagutu dituzu. Digitala zer moduzkoa iruditzen zaizu?**

Digitalarekin hasi nintzenean, ez nuen kalitatean hobeak nabarmenik ikusten. Gaur egun bai, asko eboluzionatu du. Kalitatea oso ona da, oso gaitetik dago. Lan egiteko moduan ere bai: azkartasuna... gauza gehiago egiteko aukera ematen du digitalak. Txirrindularitzan are gehiago. Errepikaezinak diren momentuak dira; harrapatzen dituzu ala ez dituzu harrapatzen.

**Nola ateratzen dituzu txirrindularitzako argazkiak, motorrean joanda, bide bazterretik...**

Txirrindularitzan, prentsako argazkiekin alderatuz, ezberdinak ateratzen saiatzen naiz. Ez dakit lortzen dudana, baina zaletu baten ikuspegitik erakutsi nahi dut txirrindularitza, bide bazterretik. Azkenaldian, kolaborazioen batzuk egiten hasi naiz eta akreditazio-txartelak lortu ditut. Motorrean behin joan naiz. Egia esanda, esperientzia oso polita izan zen baina hori ez da nire helburua. Niri lehenengo doana bezainbeste edo gehiago, interesatzen zait azkena doana. Mendiko etapa batean, lasterketaren azkenaldea fotografikoagoa da. Gainera, puntan dabilzanak oso "fotografiatuak" daude. Pelotoian 200 txirrindulari doaz.

**Frantziako Tourrera joateko oporrak hartuko dituzu...**

Aurten 31. urtez segidan joan naiz Tourrera. Bi urtean edo huts egingo nuen. Italiako Girora joaten ere saiatzen naiz. Nire kontu lan egiten dut eta horrek aukera ematen dit oporrak antolatzeko. Txirrindularitzaren aitzakian leku askotan izan gara.



## Loreak ere bai

**Loreekin eta landareekin lan egiten duzu, baina zure web gunean ez dugu loreen argazkirik ikusi.**

Ba, bilduma polita daukat flora eta faunaren inguruan. Pixkanaka sartzen ari naiz. Ziklimateore txirrindularitzako argazkien gunea da baina pixkanaka atal berriak sartzen ari naiz. Makroekin egindakoak, politikak ditut.

**Web gunean, txirrindularitzaz gain beste argazki mota batzuk ere badauzkazu: Aralar, bidaiak...**

Web gunea txirrindularitzan oinarritzen da. Baina beste gai batzuetako argazki erreportajeentzako beste txoko bat ere jarri nahi nuen. Oraindik gutxi daude, baina pixkanaka sartzen ari naiz. Bidaiena adibidez: Senegalgo hor dago. Iaz izan nintzen Senegalen. Senegalgo txirrindulari itzulian izan nintzen. Bidaiak egiten ditudanean, saiatzen naiz txirrindularitza lasterketaren bat harrapatzen.

**Emakumezkoak, ziklo-krosa... miala ezberdinetako argazkiak dauzkazu.**

Denetik dago. Ziklo-krosa asko dago, laster hasiko da gainera denboraldia. Gure artean arrakasta handia izan du. Hemen asko jarraitu izan da ziklo-krosa. Nire anaia zaharrago bat aritzen zen eta ni joaten nintzen ikustera. Jende asko mugitzen zuen. Hemengo txirrindulariak ibiltzen ziren. Igan-de goizerako oso plan polita izaten da ziklo-krosa. Lasterketa ikusi eta pintxoak eta salda beroa hartu, eta ederki. Giro ona egoten da. **Argazkiak saldu ere saltzen dituzu?**

Argazkiak erosteko aukera badago web orrian.

**Argazkirik bereziena zein duzu?**

Asko dira. Oso oroitzapen politikak ditut, Senegalen egin ditudan erreportajeaz. Ohituta gauden baino txirrindularitza gizatiarragoa zen.

Argazki zailak, teknikatik, euri askoko egunetakoak izaten dira.

Paris-Roubaix-i maitasun berezia diot. Lehenengo aldiz joan nintzenean, pabeetan... Lehenengo aldiz Giroan egon nintzenean, hiru metroko elurretako pareta tartetik pasatu ziren... estetikoki oso politikak dira argazkiak.

Maitasun handia diodan beste beste argazki bat: lehenengo aldiz Frantziako Tourrera joan nintzenean, Zaldibiako Joxe Nazabal txirrindulariak parte hartu zuen; ni afizionatuetan nen-

bilen orduan eta harreman handia geneukan, elkarrekin entrenatzen ginen... lehenengo aldiz ikusi nuenean, lur jota zetorren... orain Tourra gehiago ezagutzen da, garai hartan tourra ezagutzen genuenak, aldizkarietatik-eta ezagutzen genuen, kronika baino gehiago, leienda zen.

**Txirrindulari izana zara beraz.**

Bai, zortzi urtean ibili nintzen: infantiletatik afizionatuetara.

**Argazki ona egiteko zer hartu behar da kontuan? Txirrindularitzako argazkietan, abiadura garrantzia handikoa izango da, ezta?**

Abiadura handiarekin lan egin behar duzu. Hori da oinarria. Lan egiteko oso



modu zehatza dago. Igo-tzen ari direnean ere, poliki datozela badirudi ere, azkar datoz argazkiarentzat. Gaur egungo argazki-makinek aukera gehiago ematen dute. Egokiena, beti flasha erabiltzea da. Eguzkia dagoenean oraindik ere garrantzitsuagoa da, itzalak kentzeko. Gaur egungo argazki-makinek, flasha abiadura handiagoan sikronizatzen dute. Teknikoki abantaila handiak daude.

Nik normalean, bide bazterretik ateratzen ditut argazkiak, geldi nagoela; beraz, abiadura bikoiztu egiten da. Motorrean zoazela, teknikoki aukera gehiago dago, eta argazki gehiago egiteko ere bai. Geldi zaudela, pasatu dena harrapatu baduzu ondo, bestela itxoin egin behar hurrengo urtera arte.

### **Hau guztia nola ikasten da, ikastaroetan, praktikarekin...?**

Ni autodidakta naiz, ni neroni ikasten saiatu naiz, proba ezberdinak eginez. Oso ikastaro gutxi egin ditut. Argazkilaritza zaletasuna da beraz, bilatu nahi duzuna lortzen saiatuz... Teknika bat ikusten duzu, lortu nahi duzu... Teoria ikasten duzu, baina praktikan jarri behar izaten da. Azkenean, lortzen da.

### **Hainbat sari irabazi duzu argazki lehiaketetan.**

Peña Belokik antolatutako argazki lehiaketa gehiengentan sariren bat irabazi dut. Oso peña polita zen eta prestigio handia hartu zuen lehiaketak. Jende askok parte hartzen zuen.

Ez dut lehiaketa askotan parte hartzen, batez ere Goierrikoetan.

### **Argazki rallyetan parte hartzen al duzu?**

Inoiz ez dut parte hartu. Epaimahaietan parte hartzeko deitu izan didate baina argazkilari bezala inoiz ez dut parte hartu. Polita iruditzen zait, oso giro ona egoten omen da.

## **'Txindokiren fotogenia'**



### **Nori edo zeri aterako zenioke argazkia?**

Pertsona zehatzik ez daukat. Bidaiatzen dudanean, kaleko jendearekin egotea gustatzen zait. Nik teoria bat daukat, beharbada okertuta egongo naiz baina: argazkilaritzan, jakintza tekniko gehiago ala gutxiago izan ditzakezu, baina azken batean, argazkilaritza, begiratzen jakitea da. Argazkilaritzako zaletasuna daukagunok, detailerik txikiak ere kontuan hartzen ditugu. Niretzat, sinpleki esanda, argazkilaria kuxkuxero bat da. Askotan gainera, argazkia mentalki egiten dut. Pasiatzen zoaz, gauza oso polita bat ikusten duzu, argazki-makinari ez daukazu gainean, baina buruan argazkia egin egiten duzu. Niri eguneroko gauzak gehiago gustatu izan zaizkit argazkia ateratzeko, kaleko jende ezezaguna, joko gehiago ematen dutela iruditzen zait.

### **Zein bidaia egingo zenuke orduan?**

Edozein lekutara joango nintzateke, baina ez dago urrutira joan beharrik. Hemen bertan oso gauza politikak dauzkagu.

### **Txindokiri zenbat aldiz atera diozu argazkia?**

Asko, asko gustatzen zait. Nik uste dut, Txindoki, dagoen gauzarik fotogenikoena dela. Gehiago esango dizut: leku berdinetik, 50.000 argazki ezberdin egin diezaizkiokezu Txindokiri. Argi ona du. Itxoitea da kontua.

Beste batzuk esaten duten bezala, ez naiz ausartzen munduko politena dela esaten, mundua handia eta. Baina oso polita da.

### **Argazki-makina beti gainean eramaten al duzu?**

Gainean ez bada, gertu, oso gertu. Baina gehien lapurtzen den objektua da argazki-makina.

### **Argazkilaritza bizi zenuke gustatuko al litzazuke?**


Ez. Niri lanak askatasun handia ematen dit. Jende askok esaten dit, baina nik uste dut, gehiago gozatzen dela, obligazioz egiten ez denean.

Profesionalki argazkilaritza bizi diren lagunak badituz eta askotan erreta bukatzen dute, azken batean, bizi ahal izateko, ezkontzako erreportajeak eginez bukatzen dutelako.

Kolaborazioak egiten ditut. Garrantzitsuena, artxibo ona edukitzea da. Horrek ordu askota eramaten ditu. Diapositiban ditudan argazkiak, pixkanaka-pixkanaka digitalizatzen ari naiz.

*Ibon Soto lazkaotar igerilaria*

## Errendimendu altuko zentroan Gipuzkoako igerilaririk onenen ondoan



*Ibon Soto, 16 urteko lazkaotarra.*

**I**bon Soto. **Jaiotzez beasaindarra; Lazkaon bizi da. 16 urte. Batxilergoko ikasketak egiten ari da Lazkaoko Ikastolan. Ordiziako igeriketa taldeko igerilaria. Bular-igeriketan, 200 metrotan aritzen da.**

Urte asko daramazki Ibon Sotok igeriketaren munduan. Behartu samar hasi bazen ere, gustua hartzen ari zaio igerilekuari. “Beasainen hasi nintzen igeriketan. Hasieran, behartuta bezala joaten nintzen igeriketara, baina pixkanaka gustua hartzen joan nintzen, futbolearen ere ez nintzen hain ona, eta igerian jarraitu nuen. Gehiago entrenatzeko-eta Ordiziako taldera joan nintzen, eta han jarraitzen dut”.

2006-2007 denboraldia, urte ona izan zen Ibon Soto igerilariarentzat. “Orain arteko emaitzarik onenak lortu ditut. Hori bai, beste urtetan baino askoz ere gehiago entrenatu naiz, eta askoz ere gusturago ibili naiz. Azkenean, emaitza onak atera zaizkit”, adierazi

digu lazkaotarrak. Emaitza onaren sekretua kontatu digu: “gero eta gehiago saiatu, metro gehiago egin, probarako ondo entrenatu, eta lehiaketetan ere ondo ibili naiz”. Entrenatzeko modua aldatu ote duten galdetu diogu: “beste taldeekin konparatuz, ez gara asko entrenatzen baina gustatzen zait nola entrenatzen dugun. Ez dira metro asko, baina ondo entrenatzen dugu. Emaitza onak lortzen ditugu”, zehaztu du.

### Euskadiko txapelduna

Aurreko denboraldian, maila ona eman zuen Sotok. “Gipuzkoako txapelketan, nire lehenengo Espainiako gutxieneko denbora lortu nuen. Astebetara, Euskadikoetara, beste minima bat lortu nuen, eta Euskadiko txapeldun izan nintzen. Espainiako txapelketara joan nintzenean, ez zen oso ondo atera, Euskadikoetarako bainengoan ondo prestatuta, eta Espainiakoetara ez nuen denborarik onena egin”.

2005-2006 denboraldian ere oso getu ibili zen Es-

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

**ibai ondo**  
barne diseinua  
dekorazioa

Garai berrietarako  
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa  
Tel.: 943 16 40 40  
BEASAIN



**mazda**

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN

**Bikar, S. A.**





painiako txapelketara joateko txartela lortzeko. 2006-2007an, berriz, lortu zuen helburua. "Iaz neguko minima lortu nuen, inork uste gabe. Nik ere ez nuen espero. Espainiako txapelketara joan nintzenean, jende onarekin lehiatu nintzen... oso esperientzia ona izan zen".

Gustura dago emaitzeekin. "Bai, denboraldi amaiera ona egin nuen, oso ondo atera zitzaizkidan probak. Beldurrarekin joan nintzen, aurretik ez nintzen ondoegi ibili eta. Baina azkenean oso ondo atera zen dena eta oso gustura gelditu nintzen", azpimarratu du lazkatarrak.

### Errendimendu Altuko zentroan

Aurreko denboraldiko emaitza onen saritzat, 200 metroko bular-igeriketan, Espainiako gutxieneko denbora lortu izanagatik, Donostian sortu berria den Errendimendu Altuko zentroan dabil entrenatzen. Astean hirutan joaten da Do-

nostiara entrenatzera. 50 metroko igerilekuan entrenatzen du. Ordiziako igeriketa taldeko igerilari bakarra da Soto Errendimendu Altuko zentrorra joateko aukera duena. "Gipuzkoa mailako igerilaririk onenak gaude bertan. Han gabiltzan guztiak, iazko denboral-

## "50 metroko igerilekuan gogorragoa da igeri egitea"

### Gorputz osoa hartzen duten bainujantzirik ba al daukazu?

Lehiaketarik garrantzitsuenetan erabiltzen dut. Depilatu ere orduan egiten naiz.

### Depilatu egiten al zarete igerilariak?

Bai, ni hiru bat aldiz depilatuko nintzen: iaz, Euskadiko txapelketan, minima lortu nahi nuelako; eta aurtengo neguan eta Espainiakoan. Ilerik gabe, urak irrist egiten duela ematen du.

### Zein da igerilarietan zure idoloa?

Ez daukat idolorik baina izatekotan, Oleg Lisogor ukrainiarra. Munduko errekorra dauka eta Donostiako Eguberrietako Nazioarteko lehiaketan topo egin nuen.

### Zein da gehien gustatzen zaizun igerilekua?

Gehien gustatzen zaidan igerilekua Ordiziakoa da, ohituta nagoelako. Sabadelleko igerilekua ere asko gustatu zitzaidan. Urari gatz-edo botatzen diote eta gehiago flotatzen duzu.

50 metroko igerilekuan gogorragoa izaten da igeri egitea. Pareta daukazunean, eskuak erlaxatu egiten dira. 50 metrokoan, agujetekin bukatzen duzu, dena segidan egin behar da eta.



dian, Espainiako minimak lortutakoak gara. Beste entrenatzeko modu bat dago Donostian. Beroketak egiteko era ere, ezberdina da. Astean hirutan Donostian entrenatzen dugu eta pentsatzen dut hurrengo denboraldian nabarituko dela", dio Ibon Sotok.



**ZEGAMA**  
**OKINDEGIA**  
*Eskuz egindako ogi naturala*  
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak  
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

**SALMENTA PUNTUAK:**  
**Beasain:** Oskarbi, Osña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxus:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



**ONE MENDIZABAL**  
**ILEAPAINDEGIA**

Emakumezkoen nahiz gizonezkoen ileapaindegia  
Astelehen goizetan zabalik



943 18 04 92  
Helbarrena, 24  
ATAUN



**Kirol bat:**

Waterpolo eta saskibaloia.

**Zaletasun bat:**

Lagunekin ateratzea.

**Musika talde bat:**

Txikitan, The Offspring, Californiako taldea, gustatzen zitzaidan. Orain denetik entzuten dut.

**Liburu bat:**

Ez zait asko gustatzen irakurtzea, ikastolan behartzen digutelako irakurtzen dut. Baina behartutako liburu batzuk gustatu eta zaletu egin naiz. 'Txakurraren alaba' irakurri nuen iaz eta gustatu zitzaidan.

**Handitan zer izan nahi duzu?**

Ametsa, igerilari profesionala izatea da, baina hori ezinezkoa da. Oraindik ere ez dakit zer ikasiko dudan...

**Amets bat:**

Etorkizunean arazorik ez edukitzea eta zorionsu bizitzea.

**Janari bat:**

Arroza.

**Edari bat:**

Entrenatu ondoren, Isostarra. Bestela ura edaten dut.

200 metroetako bular-igeriketan ibiltzen da ondoen Ibon Soto. "Txikitatik, gustatu izan zait. Beste estiloetan ez naiz gaizki ibiltzen baina bular-igeriketan hobeto. Dena den, ondo etortzen da estilo guztietan entrenatzea. Neurriarekin ere berdina gertatzen da. Hasieran proba luzeetarako entrenatzea ondo dago, baina adinean aurrera zoazenean eta entrenatzeko denborarik ez daukazunean, gehienek proba motzak aukeratzeko dituzte".

Euskadiko selekzioare-

kin parte hartu zuen lazkaotarrak aurreko denboraldian, 200 metro, estiloetan. "200 metro estiloak egitera joan nintzen, ez zen nire proba, baina bular-igeriketarako bazeuden eta estiloetan sartu ninduten. Gaizki ez nuen egin, baina ez nengoien prestatuta", zehaztu du Ibon Sotok.

**Denboraldi berria**

Aurreko denboraldia uztaillean bukatu zuen lazkaotarrak. Udako atsedenaren ondoren, poliki-poliki entrenatzen hasita daude, aza-

ro erdialdera hasiko baita denboraldia. "Aurre denboraldian gaude. Lehorreko entrenamenduak egiten ari gara. Bi astera uretan hasiko gara. Hasieran metro asko egiten hasiko gara. Gero bakoitza bere estilora bideratzen hasiko da".

Espainiako gutxieneko denbora eskuratzea du helburu lazkaotarrak. "Neguko minima lortzea, Espainiako txapelketarako, eta han ahalik eta ondoena egitea". Euskadiko eta Espainiako txapelketak, martxo aldera jokatzeko dira.

Aitarekin ere apusturen bat egin dauka kontu honen harira: aitak, ezetz neguko minima lortu; Ibonek, baietz. 10 euroko apustua egin dute.

Ametsa igerilari profesionala izatea bada ere, etorkizuna nola ikusten duen galdetuta ez du oso argi ikusten: "bigarren batxilergoa bukatu eta unibertsitateara joaten baldin baina, ez dakit igeriketarekin zer egingo dudan. IVEF egiteko asmoa daukat baina ez dakit notarik lortuko dudan".

**VOLVO** 

**ANZIZAR, S. A.**



**Autoen salmenta  
Mekanika eta  
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**  
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48

**IÑAKI ARIN**  
aseguruak



943 888 702 Oriako pasealekua, 20 BEASAIN



## Ordizia

# Ordiziarrock 07

### Urriak 18, osteguna:

**17:00etan:** 'Kptura 07' argazki erakusketaren hasiera Barrena Jauregian.

**18:00etan:** Ordiziako Musika Eskolaren 25. urteurrena: Musika eskolako ikasleen kontzertua karpan.

### Urriak 19, ostirala:

**17:00etan:** Skate gunearen irekiera: entrenamenduak.

**20:30etan:** 'Zineskate 07' skate bideoen zikloaren hasiera karpan.

**22:30etan:** Kontzertuak: Deskriados, I Am Raros, Itaka eta Neubat.

### Urriak 20, larunbata:

**11:30etan:** Skate eskola herriko plazan.

**16:00etan:** Skate lehiaketaren hasiera pilotalekuan.

**18:00etan:** Graffiti erakusketa karpan.

**20:30etan:** 'Zineskate 07' skate bideoen zikloa.

**22:30etan:** Kontzertuak: Ezinean, Zik-Lick (ondoren, skate sarien banaketa), Milkshake eta Sixty Sexers. Amaieran musika karpan.

## Lazkao

# Kirol astea

### Urriak 23, asteartea:

**10:30etan:** Errealaren entrenamendu saioa, Arizti Haundi futbol zelaian.

### Urriak 24, asteazkena:

**19:00etan:** 'Traupeneko kirolaren entrenamendu eta elikadura pautak' hitzaldi-solasaldia, kultur etxeko gaztelekuan. Partaideak: Iratxe Aranburu (eliteko korrikalaria), Etor Mendia (prestatzaile fisikoa), Naroa Arrieta (dietista), Txetxu Urbietta eta Kepa Iribar (kirol kazetariak).

### Urriak 25, osteguna:

**15:00etan:** Goi mendietako material erakusketa, kultur etxeko erakusketa gelan. Himalaya eta goi mendietan erabiltzen diren material egongo da ikusgai: bota bereziak, zakuak, eskularruak, arropa, denda...

**19:00etan:** 'ShishaPangma 2006' ikusentzutekoa, Ander Goitia lazkaotarraren eta Koke Lasa ormaiztegiarraren eskutik, kultur etxeko erakusketa gelan.

### Urriak 26, ostirala:

**20:00etan:** Gipuzkoako elkarten arteko pilota partidua, plazako pilotalekuan. Jubenilak: Lazkao - Añorga. Nagusiak: Lazkao - Hernani eta Lazkao - Olalde.

### Urriak 27, larunbata:

**11:00etan:** Emakumezko kadeteen futbol partidua: Lazkao - Eskoriatza. Erregional mailako futbol partidua: Lazkao - Mutriku. Arizti Haundi futbol zelaian.

### Urriak 28, igandea:


**08:30etan:** Mendi irteera Erniora, herriko plazatik.



**Iñasti**  
Hertz Klinika  
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO  
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK  
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN  
☎ 943 88 46 28



**MUJIKA**  
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94  
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

San Inazio, 14 BEASAIN  
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA  
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA  
☎ 943 650 239

*Lurrindegia eta opari gaiak*

**PSIKOLOGI KLINIKOA**

**ARGI** Jose Ramon Pato Prieta  
Psikologian lizentziatua  
Elkargokide zenbakia: E-2644  
RPS: 420/01

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041  
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

## Udazken kulturala

### urriaren 18tik azaroaren 11ra

#### Urriak 18, osteguna:

**21:00etan:** Zine-kluba: Adreas Dresenen 'Verano en Berlin' filma, Usurbe Antzokian.

#### Urriak 19, ostirala:

**18:30etan:** Erraldoi eta kilikien irteera txistulariek lagunduta.

**22:30etan:** Dantza-antzerkia: Ertza taldearen 'Look' ikuskizuna, Usurbe Antzokian. Sarrera: 8 euro.

#### Urriak 20, larunbata:

**17:30etan:** Oihulari Klown taldearen 'Mamu txikiak' ikuskizuna, Loinazko San Martin plazan.

#### Urriak 21, igandea:

**09:00etan:** XVI. Aire zabaleko Pintura-lehiaketa.

Mihiseak zigitatzeko epea irekiko da. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan. 13:30etan amaituko da lanak aurkezteko epea.

**09:00etan eta 14:00etan:** Beasaingo XVI. Argazki-rallya. Izena emateko epe-irekitzea eta material-banaketa, Urbieta Arte Plastikoetako Zentroan. 18:00etan bukatuko da lanak aurkezteko epea.

**18:30etan:** XVI. Aire zabaleko Pintura-lehiaketa: Sari-banaketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan. Erakusketa zabalik egongo da azaroaren 11ra bitartean.

**18:30etan:** 'The Mckensy's Clan Band' taldearen kale-jira.

#### Urriak 24, asteazkena:

**17:30etan:** 'Eriz' magoaren emanaldia haurrentzat, Udal Batzar Aretoan.

#### Urriak 25, osteguna:

**21:00etan:** Zine-kluba: Koldo Serraren 'Bosque de sombras' filma, Usurbe Antzokian.

#### Urriak 26, ostirala:

**18:00etan:** Asmube abesbatzak eskainita, euskal kanten emanaldia eta Virginia Imazen ikuskizuna, La Salle-San Jose ikastetxeko aretoan.

**18:30etan:** Erraldoi eta kilikien irteera txistulariek lagunduta.

**22:30etan:** Antzerkia: Dar-Dar produkzioaren etxearen 'Gaurko menua', Usurbe Antzokian. Sarrera: 8 euro.

#### Urriak 27, larunbata:

**17:00etan:** Haurrentzako filma: 'Doraemon eta dinosaurio txikia', Usurbe Antzokian. Sarrera: 3 euro.

**19:30etan:** Txistu-kontzertua Goierriko Txistulariekin, Loinazko San Martin plazan.

#### Urriak, 28 igandea:

**12:00etan:** Pintura-tailerra, Joan Iturralde plazan.

**18:00etan:** Patxi eta konpaniaren 'Dantza piko' animazio ekitaldia, Loinazko San Martin plazan.

#### Urriak 30, asteartea:

**18:30etan:** Hitzaldia emango du Rafael Benito doktoreak: 'Elikadura portaeren asaldadurak: nerbio anorexia eta nerbio bulimia'. Udal Batzar Aretoan.

#### Urriak 31, asteazkena:

**20:00etan:** 'Vocaal Ensemble Cantando' abesbatzaren kontzertua, Andre Mari Zeruratuaren Parrokian.

#### Azaroak 1, osteguna:

**13:00etan:** Mutrikuko udal musika bandaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan.

#### Azaroak 2, ostirala:

**17:00etan:** Antzerkia: Golden Apple Quartet eta Kanpingags taldeek aurkeztutako 'Karabas' ikuskizun musikal, Usurbe Antzokian. Sarrera: 3 euro.

#### Azaroak 3, larunbata:

**10:00etan:** Bertako elikagaien azoka berezia, Loinazko San Martin plazan.

**12:00etan:** Odolki-dastatzea eta lehiaketa, Loinazko San Martin plazan.

**14:45etan:** Bazkari herrikoia. Tiketak alde zuretik salgai, Loinazko San Martin plazan.

**17:30etan:** Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoen 'Oporrak hondartzan' ikuskizuna, Loinazko San Martin plazan.

**18:00etan:** 'Bentazaharreko mutiko alaiak' taldeak kaleak girotuko ditu.

#### Azaroak 4, igandea:

**08:00etan:** Murumendira eta Garina mendi-irteera "finalistaren eguna" ospatzeko.

**18:30etan:** Dantzaki dantza-eskolako eta Gala ballet eskolako irakasleen eta ikasleen dantza-erakustaldia, Loinazko San Martin plazan.

#### Azaroak 6, asteartea:

**18:30etan:** Hitzaldia emango du Rafael Benito doktoreak: 'Elikadura portaeren asaldadurak: prebentzioa eta tratamendua'. Udal Batzar Aretoan.

**21:00etan:** Fatih Akin zuzendariaren 'Cruzando el puente. Los sonidos de Estambul' filmaren emanaldia, Usurbe Antzokian.

#### Azaroak 7, asteazkena:

**19:00etan:** Beasaingo Paperak bildumaren 15. zenbakaren aurkezpina, Usurbe Antzokian. Gaia: 'Beasaingo Euskara'.

#### Azaroak 8, osteguna:

**19:00etan:** Ibon Ajuriaren diapositiba-emanaldia. Gaia: 'India, Nepal, Tailandia eta Laos', Udal Batzar aretoan.

**21:00etan:** Zine-kluba: Philip Grönin zuzendariaren 'El gran silencio' filma, Usurbe Antzokian.



Zaldibia

## Ardiki eguna

### Urriak 27, larunbata:

**19:30ean:** 'Nekazaritza eta abeltzaintzak duen garrantzia herri txiki eta mendiko eremuetan' hitzaldia kultur etxean. Hizlaria: Michel Berhoco Irigon, Laborantxa Ganbarako lehendakaria.

### Urriak 28, igandea:

#### Zaldibiako Mondejuaren XIII. Lehiaketa Aralarko X. Gaztaren lehiaketa

**10:30ean:** Diana, herriko txistulari, Astiazaran anaiak eta Juan Mari Beltran trikitilariak, Hernaniko Musika Eskolako albokalari, dultzainero eta txistulariek alaituta.

**Artisautza erakusketa:** Ardi gazta, edo Mondejuak egiten, Artillea, Liñua lantzen, telarra,...

**Ganadu erakusketa:** ardi eta ahari loteak, pottokak,...

#### Salmenta azoka

**12:00etan:** Zaldibiko XIII. Mondeju eta X. Aralarko Gaztaren lehiaketak. Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertso kantari direla mondejuak dastatu ahal izango dira herriko plazan.

**12:30ean:** Kalean zehar artaldeak pasako dira

**13:30ean:** Sari banaketa.

**14:30ean:** Bazkaria, herriko jatetxeetan (mondejua, ardikia saltsan, ardikia erreta piperrekin, gazta, ardoa, kafea, kopa eta purua: 20 euro). Bazkari-txartelak herriko jatetxeetan daude salgai: Arrese jatetxea (943 882496), Joxepane jatetxea (943 882047), Uriko jatetxea (943 887146), Zahar Egoitza, Illati taberna (943 883105)

**19:30ean:** Lagunarteko kalejira 2007ko Ardikiki Egunari amaiera emateko.

**21:30ean:** Ardikiki egunaraen amaiera.

Legorreta

## Kultur astea

### Urriak 24, asteazkena:

**17:00etan:** Maite Franko ipuin kontalariaren 'Mundu zabaleko ipuinak' emanaldia liburutegian, 4-5 urtetik aurrerakoentzat.

**18:00etatik 20:00etara:** Bidezko merkataritza eta erakusketa Salbador Deunaren elizako Zimitorioan.

**18:30ean:** Buruhandiak.

**19:00etan:** 'Mugitu zaitez, ez zara damutuko', hitzaldia Herri Zineman. Babeslea: Kutxa.

### Urriak 25, osteguna:

**18:00etatik 20:00etara:** Bidezko merkataritza eta Erakusketa Salbador Deunaren elizako Zimitorioan.

**19:00etan:** Buruhandiak.

**19:00etan:** 'Gorputz-higienearen eta gorputza zaintzearen garrantzia', hitzaldia Herri Zineman. Babeslea: Kutxa.

**20:30ean:** "In this world. (Mundu honetan)" filma Herri Zineman.

### Urriak 26, ostirala:

**16:30ean:** Pote, igel eta toka txapelketa jubilatuentzat.

**18:00etatik 20:00etara:** Bidezko merkataritza eta Erakusketa Salbador Deunaren elizako Zimitorioan.

**19:00etan:** Buruhandiak.

**19:00etan:** 'Legorparty 2007' ordenagailu topaketaren hasiera Patxi Ezkiaga kultur etxean.

**23:00etan:** Legorretako XIII. Mus txapelketa Bilkoin K.K.E.-n.

### Urriak 27, larunbata:

**18:00etan:** 'Sebastopoleko Titiriteroak' taldearen 'Zingaroen ibilbidea' emanaldia Herri Zineman.

**18:00etatik 20:00etara:** Bidezko merkataritza eta Erakusketa Salbador Deunaren elizako Zimitorioan.

**22:30ean:** Mikel Markez eta Pako Aristik 'Tabuak saltsa berdean' lana eskainiko dute Herri Zineman.

### Urriak 28, igandea:

**11:30etik 14:00etara:** Bidezko merkataritza eta Erakusketa Salbador Deunaren elizako Zimitorioan.

**11:00etatik 14:00etara:** Inmigratio azoka. Legorretan bizi diren inmigrante komunitate desberdinen herrialdeetako produktuen erakusketa eta dastaketa. Jakiak, arropa, tresnak...

**12:45ean:** Harrera Inmigrante komunitateei 'Irrintzi alai' dantza taldearen eskutik.

**13:00etan:** Kriket partidua: Pakistan - Gazte Piku.

**20:00etan:** 'Legorparty 2007' ordenagailu topaketaren amaiera Patxi Ezkiaga kultur etxean.

### Urriak 24 - 28

'Mundua legorretarron begietatik' argazki erakusketa, Herriko Tabernetan, Elkartean eta Gaztetxean.

## BESTELAKOAK

### erosi

**Umeen** kotxe kapota bat hartu edo erosiko litzateke. Norbaitek egoera onean balu, deitu. 630861781.

**Autorako** ume-aulkia behar dut. 635204905.

### salgai

**Bertako sagarra** salgai. Gabiria. 943881875.

**Sutarako** egurra salgai. 943160786.

**Oso egoera** onean dagoen txakurra eramatekoa, salgai. 677382213.

**Sutarako** pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615755762.

**Tarot** kontsultak. 943766214.

## IBILGAILUAK

### salgai

**Audi A3** 1.9 Tdi salgai. 110 zaldi. 1999koa. Gehigarriekin. Egoera onean. 610019183.

## NEGOZIOAK

### errentan eman

**Urretxun** Florida taberna alokatzen da. 662247715.

## LANA

### eskaerak

**Seguran** emakumea behar da goizez, umea zaintzeko. 943880455 - 943802003.

**Ormaiztegiko** ilepaindegi batean neska behar da aste-buruetan lan egiteko. 943880624.

**Asteburuetan**, urritik aurrera, ordu batzuk lan egiteko pertsona bat behar du.

Ikasleentzat aukera aproposa. 617771356.

### eskaintzak

**Emakume arduratsua**, etxeko lanak egiten eta umeak edo adinduak zaintzen lan egingo luke. 606826060.

**Goizetan orduka** etxeko lanak egiten edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 943160786.

**Adinduak zaintzen**, garbitzen, etxeko lanak egiten... lan egingo nuke. 619821216.

**Emakume ekuatoriarra**, paperekin, lan bila dabil: arratsaldetan edo gualdeetan etxeak garbitzeko. 696030249.

**Neska**, haurrak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. 943027227.

**Orduka** edo egun osoan lan egiteko neska eskaintzen da: umeak edo adinekoak zaindu, garbiketa... 606722876.

Goierritarrako iragarki laburrak: hitz bakoitzeko 0,63 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da [www.goierrikohitza.info](http://www.goierrikohitza.info) webgunean.

943 16 00 56

[goierritarra@goierrikohitza.info](mailto:goierritarra@goierrikohitza.info) / [gh@goierrikohitza.info](mailto:gh@goierrikohitza.info)

## ETXEBIZITZAK

### salgai

**Beasain.** Etxebizitza salgai: 50 m2. 2 logela, eraberritua, altzaruz hornitua. 26 milioi pezeta. 605765135 - 670422467.

**Beasain.** Eraikuntza berriko 2 logelako pisua salgai. Erdigunean. Garajearekin. INMO F3. Beasain. 943164936 - 629417171.

**Beasain.** Atiko eder bat salgai. Kale Nagusian. Igogailuarekin. INMO F3. Beasain. 943164936 - 629417171.

**Beasain.** Duplex ederra salgai. Bista paregabeak. INMO F3. Beasain. 943164936 - 629417171.

**Beasain.** 4 logelako etxebizitza salgai, garajearekin. Bista paregabeak. INMO F3. Beasain. 943164936 - 629417171.

**Idiazabal.** Etxebizitza salgai. 2 logela, sukaldea, egongela-jangela, komuna, terraza, garajea. Altzariz hornitua. 943027603 - 656745342.

**Ordizia.** Urdaneta kalean, etxebizitza salgai. 4. solairua. Igogailuarekin. Sukaldea, 2 gela, egongela eta komuna. Guztiz eraberritua. Ganbara handi bat. Tren geltokitik 200 metro-ra. 652755361.

**La Pineda Villasecan (Tarragona)** apartamentua salgai. 617878210.

## GALDUTAKOAK

**Euskal artzain** txakurra galdu da Ezkio-Zumarraga inguruan. 627069943.

**Irailaren 29an**, Altzagako puzgarrietan, umeren batek 3 taila txikiagoak diren Geox zapatila arroxak eraman zituen konturatu gabe. Norbaitek jakingo balu 619441919 telefonora dei dezala.

## AURKITUTAKOAK

**Setter** eme gaztea, kanela argi kolorekoa, agertu da galduta lurre auzoan, Olabarriean. Ez dauka chip-ik. Adoptatu nahi duenak: 606722876.



**Erretegi bezala zabalik**

- \* Eguneroko menuak
- \* Karta zerbitzua
- \* Ospakizunak
- \* Plater konbinatuak

**Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO**

Joan Iturralde, 5 - Beasain  
943 160 120  
(arratsaldez)

# Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

**ESKOLA LAGUNTZA:**  
Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, moduluak

**UNIBERTSITATE MAILA:**  
Enpresaritza, Injeniaritza, Kimika eta Fisika

**INFORMATIKA:**  
Mekanografia, Word, Acces, Excel

**IKASKETA TEKNIKAK**

**INGELERA:**  
Maila guztiak, PET, First Certificate, mintza praktika

2007-2008  
ikasturtea





A  
N  
D  
A  
M  
I  
O  
R  
I  
K

G  
A  
B  
E  
K  
O

L  
A  
N  
A  
K



**NANARRI**  
LAN BERTIKALAK

680 641 401

676 952 968

www.nanarri.com

Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak

Teilatuak Kanaloiak Bajanteak Tximiniak Altuerako kimatzeak

**Goierri**tarra



goierriko

**hitza**

**Abantailaz betetako elkarlana**

**Harpidedunen abantailak:**

Egunero Hitza eta hamabostero Goierritarra etxean jasoko dituzu.

Zorion-agurretan deskontuak.

Zozketetan parte hartzeko aukera.

### Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

**Goierri**tarra 25 euro Egin  bat aukeratutako kaxan  **hitza** 62,5 euro

**Goierri**tarra +  **hitza** 67,5 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Telefono zenbakiak:.....

NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:  
Goierritarra, Urbialde plaza 7 behea, Beasain

Harpidedunen arreta zenbakia: **902 82 02 01**



### Lazkaotarrak duela 60 urte inguru

1948-1950 urte artean ateratako argazkian Lazkaoko lagun talde bat ageri da.

**Zutik ezkerretik eskuinera:** Joxe Mari Aramendi, Joxe Estala eta Antonio Armendariz.

**Pikotxean:** Antonio Arruabarrrena (Peki), Joakin Larrañaga, Miguel Mendizabal eta Narziso Baztarrika.

**OVER** Urraki  
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**  
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79  
urraki@over.es www.over.es

### ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,  
alineazioa,  
aluminiozko llantak  
Filtroak, olioak,  
engrasea  
Frenu pastilak, tubo  
eskapeak, bateriak  
Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

**ARRIETA**  
JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,  
bataioak...  
era guztietako  
ospakizunak

☎ 943 88 00 02  
**OLABERRIA**

**Dolarea**  
j a t e t x e a

www.dolarea.net

Nafarroa etorbidea, 21  
20200 Beasain  
T 943 888 829

*Aho finen  
gozamenerako...*

Gure kartak otordu  
landuak eskeintzen  
ditu non zapore eta  
texturak aurkezpen  
harmoniosuekin  
konbinatzen diren...



faktone

**BARANDIARAN**  
**Zeramikak**

ERREF. MAK. DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJU

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN  
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657  
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



# Orain Olaberrian

Toyota kontzesionario berria!

## **EuskoAuto**

Karobi industrialdea z/g  
Olaberria  
Tel.: 943 80 59 26



**TOYOTA**

[www.euskoauto.toyota.es](http://www.euskoauto.toyota.es)